



Euskararen belaunaldiz belaunaldiko
transmisioa indartzeko modulua



**IPUINEN
KONTAKETA**

HADE

IKASLEAREN LIBURUSKA

EGILEAK:

Proiektuaren arduraduna: **Xabier Elortza** (HABEko Programa Berezien arduraduna)

Didaktikaria: **Agurtzane Maiz** (HABEko teknikaria)

Diseinua eta maketazioa: **Olaia Ubeda**

Sabin Arzelus (HABEko teknikaria)

Alex Mungia (HABEko teknikaria)

Mertxe Salegi (HABEko idazkaria)

Gure esker ona, neurri batean edo bestean, modulu hau egiten lagundu diguten guztiei:

Pello Añorga, Joxe Arratibel, Luisa Castrillo, Itziar Garitagoitia, Juan Kruz Igerabide, M. Jose Insausti, Arantxa Iturbe, Ixiar Sarasola, Koro Urbieto eta Tomasa Uriarte.



4. or.

1. ZER-ZERTARAKO

2. SAIOAK

1.- SAIOA

- 1. Jarduera 6. or.
- 2. Jarduera 10. or.

2.- SAIOA

- 3. Jarduera 13. or.
- 4. Jarduera 17. or.

3. SAIOA

- 5. Jarduera 19. or.
- 6. Jarduera 21. or.

4. SAIOA

- 6. Jardueraren jarraipena 23. or.

5. SAIOA

- 7. Jarduera 26. or.
- 8. Jarduera 28. or.

6. SAIOA

- 9. Jarduera 30. or.
- 10. Jarduera 32. or.
- 11. Jarduera 33. or.

7. SAIOA

- 11. Jardueraren ondokoa 35. or.
- 12. Jarduera 35. or.
- 13. Jarduera 36. or.

8. SAIOA

- 14. Jarduera 37. or.
- 15. Jarduera 37. or.

9. SAIOA

- 16. Jarduera 39. or.
- 17. Jarduera 39. or.
- 18. Jarduera 41. or.

10. SAIOA

- 19. Jarduera 42. or.

11. SAIOA

- 19. Jardueraren jarraipena 43. or.
- 20. Jarduera 44. or.

12. SAIOA

- Azken jarduera 45. or.
- Ebaluazioa 45. or.

3. IPUIN-BILDUMA

46. or.

1

Zer-zertarako



Modulu honen amaieran, ondorengo hau jakingo duzu:

* Ipuinek dituzten baloreak ezagutuko dituzu, eta berauek umeen aurrean egoki kontatzen jakingo.



Modulu honetako azkeneko jarduera honako hau izango da:

* Azkeneko egunean etorriko diren umeei ipuinen bat egoki kontatzea.

Eta hau lortzeko, ondorengo jarduerak egingo dituzu:

1. Saioan:

- ✓ Ipuinen kontaktari dagokionez, zure etxean dauden ohituren berri eman.
- ✓ Ikaskideen etxeetako ohiturak ezagutu eta norberarenekin alderatu.
- ✓ Modulu honen inguruan ekarri dituzun espektatibak adierazi.
- ✓ Bukaeran zer egiten jakin nahi duzun adierazi.
- ✓ Ipuinak duen balio hezitzailea ezagutu, eta moduluak dituen helburuen, edukiaren eta metodologiaren berri izan.

2. Saioan:

- ✓ Ipuinak euskararen transmisioan duen garrantzia ezagutu.
- ✓ Ipuinak kontatzerakoan izaten diren hizkuntz zailtasunak ezagutu.

3. Saioan:

- ✓ Ipuinak kontatzerakoan euskara batuaren eta euskalkiaren artean dauden ezberdintasunak ezagutu.
- ✓ Batuan nahiz euskalkian kontatu.



- ✓ Ahozkotasunak dituen ezaugarriak ezagutu.
- ✓ Ipuinen osagaiak ezagutu.

4. Saioan:

- ✓ Ipuinen osagaiak ezagutu eta aztertu.

5. Saioan:

- ✓ Ipuinak kontatzeko baliabide batzuk ezagutu.
- ✓ Irudi/testua duen ipuin-liburu bat kontatzeko moduz jabetu.

6. Saioan:

- ✓ Hainbat ipuinetako irudiak ezagutu.
- ✓ 2-6 urte bitarteko umeentzako hainbat ipuin aukeratu eta kontatzeko prestatu.
- ✓ 2-6 urte bitarteko umeentzako ipuinak kontatu.

7. Saioan:

- ✓ Ahoz jasotako ipuinen ezaugarriak ezagutu.
- ✓ Norberak ipuin-kontaktaren transmisioari dagokionez duen zuhaitz genealogikoa adierazi.

8. Saioan:

- ✓ Norberak bere aurrekoengandik jasotako ipuinen bat gogoratu, eta kontatzeko prestatu.
- ✓ Norberak bere aurrekoengandik jasotako ipuinen bat kontatu.

9. Saioan:

- ✓ Ipuinak asmatzeko jokoak ezagutu.
- ✓ Asmatututako ipuin bat irizpide jakin batzuen arabera aztertu.

10. Saioan:

- ✓ Ipuinak asmatzeko kontuan izan beharreko baliabideak ezagutu.
- ✓ Ipuin bat asmatu, eta besteen aurrean kontatzeko prestatu.

11. Saioan

- ✓ Prestaturiko ipuinak ikaskideen aurrean kontatu.
- ✓ Irizpide jakin batzuen arabera ipuinik egokienak aukeratu eta arrazoitu.

12. Saioan

- ✓ Aukeraturiko ipuinik egokienak eskolako umeen aurrean kontatu.
- ✓ Amaierako galdesorta-gida hartu, eta, elkarrizketaren bidez, moduluaren ebaluazioa egin.
- ✓ Aurrerantzean, ipuinak kontatzean egin dezakezunaz gogoeta egin.

2

Safioak

s a i 1 o a

1 **jarduera**



1. Bideoz hiru egoera ikusi ondoren, erantzun itzazu ondorengo galderak:

A EGOERA



Zein izan da aitaren lehenengo erreakzioa, alabak ipuin bat kontatzeko eskatu dionean?



Zergatik uste duzu izan duela erreakzio hori?



Nolako ipuina kontatu du amak?



Zergatik harritu da ama, umeak ipuin hori kontatzea nahi duela eskatu dionean?



Zergatik uste duzu nahi duela umeak horrelako ipuina kontatzea?



B EGOERA



Zer dela eta bururatu zaio semeari ipuina kontatzeko eskatzea?



Zergatik harritu da lehengusua?



Zein izan da osabaren erreakzioa?



Zergatik uste duzu izan duela erreakzio hori?



Nolako ipuina kontatu du aitak?

C EGOERA



Zergatik eskatu diote amari ipuina kontatzeko?



Noiz kontatu nahi du amak ipuina? Zergatik?



Zergatik irakurtzen du ipuina, eta ez kontatu?



Zergatik nahi du senide bakoitzak bere ipuina irakurtzea?



Zergatik aukeratu du amak alabarena?

2. Orain, adieraz ezazu ondorengo lerroetan ipuin horietako norekin eta zertan egiten duzun bat gehien?

3. Hurrengo galderak oinarri hartuta, aztertu zure etxeko ohitura. (Idatzi gabe)



Zure etxeko egoera:

- Nork kontatzen ditu ipuinak?
- Zergatik?
- Noiz?
- Nolako ipuinak?
- Zergatik?
- Beste era bateko egoera izatea gustatuko al litzaizuke? Nolakoa?




4. Egindako lana komenta ezazu zeure aldamenekoarekin.
5. Egin ezazu zeure ondokoaren aurkezpena: zer familia duen; etxean euskaraz egiten duten; ipuin-kontaktari dagokionez, zer ohiturak dituzten; ohitura horiekin konforme dagoen ala beste era batekoak gustatuko litzaizkiokeen, etab.
6. Bukatzeko, adieraz ezazu zein diren modulu hau egiterakoan ekarri dituzun espektatibak, eta zer egiten ikasi nahi duzun amaieran.



NIRE ESPEKTATIBAK

Etxera joaten zarenean, idatz ezazu ondorengo lerroetan besteen aurrean adierazi duzuna. Era honetan, amaieran, ikastaroaren balorazioa egiten dugunean, irakurri eta zure espektatibak zenbateraino bete diren alderatu ahal izango duzu.



1. Zure ustez, zer lortzen dute umeek ipuinen bidez? Binaka jarrita, idatzi lehenengo laukian 2 gauzarik garrantzitsuenak, bigarrenean beste bi garrantzitsu eta, hirugarrenean, garrantzirik ez dutela pentsatzen duzun beste bi.


Garrantzitsuenak

-
-




Garrantzitsuak

-
-



Hainbesteko garrantzirik ez dutenak

-
-



2. Ondoren, ipuin-idazle bati egindako elkarrizketa entzungo duzu. Elkarrizketa hau entzun ahala, idatz itzazu ondorengo lerroetan haren ustez ipuinak dituen baloreak.



1

saioa



- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

3. Jarri berriro binaka, eta aldera itzazue lehenago zuek adierazitakoekin.
4. Adieraz itzazue, besteen aurrean, alderaketaren ondorengo emaitzak.
5. Jaso hemen ipuinen balore nagusiak.



- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

6. Modulu honen azken jarduera honako hau izango da.



Azken Jarduer a

SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Lehenengo saio honetan erabili dugun lan-modua ikusita, idatz itzazu jarraian saioan zehar izan dituzun bi sentrazio.

1

2

Ondoren, adieraz ezazu denen aurrean lehenengo saio honi buruz duzun iritzia orokorrean.

Amaitzeko, idatz ezazu iritzi hori.







3 jarduera

Oraingoan 4 laguni egindako inkesta entzungo duzu, taldeka. Ea zer dioten!

1. Entzun duzu guraso horiek erantzundakoa; zein uste duzu izan direla galderak?



2. Eta, zuri galdera horiek egingo balizkizute, zer erantzungo zenuke?



3. Bila itzazu gelan zureak bezalako erantzunak eman dituztenak, eta elkar zaitezte talde batean.
4. Adieraz itzazue zuen iritziak besteen aurrean.
5. Zein animalia ezagutzen dituzu zuk? Ba al dakizu zer esaten den bakoitzari buruz euskal ipuinetan? Lotu itzazu ordenatu gabe dauden ondorengo animalia izenak eta dagozkion testuak. Bukatzerakoan, egiazta itzazue denon artean.

Mandoa	<ul style="list-style-type: none"> ● begi bakarreko sugea izanik, eta ere begi bat baizik ez, biak konpondu omen ziren aldizka elkarri begia uzten joateko. berea utzi bai baina, ez inoiz itzuli. Geroztik itsua da
Azeria	<ul style="list-style-type: none"> ● ba omen zituen hasieran begiak. Begiak bai eta buztanik ez., berriz, buztana bai eta begiak falta. ezin omen zituen lurpean begiak baliatu, eta buztanaren truke eman zizkion. Geroztik buztana badu, eta bi begi.
Satorra eta igela	<ul style="list-style-type: none"> ● Euskal Herriko ipuinetan animaliarik argiena. Begi biziak, sudur ona, hortz zorrotzak eta hanka arinak.
Urretxindorra eta zirauna	<ul style="list-style-type: none"> ● Izen txarra du. Latza, zakarra eta kaskamakurra: uste ez delarik ostikoa.
Txantxangorria eta kukua	<ul style="list-style-type: none"> ● Haragizaleak dira eta biak lapurrak. agintzen du lurraren gainean, baina da nagusi airean.
Otsoa eta mirua	<ul style="list-style-type: none"> ● alferra da. Zazpi urtez ibili omen zen eskolan eta kuku abesten bakarrik ikasi omen zuen. Ez daki umeak ateratzen ere eta bestek hazten dizkio, txantxangorriari utziz arraultzak.
Hartza	<ul style="list-style-type: none"> ● Abere guztien artean izukor eta beldurtia atera da Txikiek eta handiek ikaratzen dute.
Erbia	<ul style="list-style-type: none"> ● Garai batean baziren Euskal Herriko mendietan, baina ez ziren herrira jaisten. Beldurra zioten gizonari.



6. Animalia horietatik guztietatik zein dira aipatuenak zuen iritziz?

7. Horietako bakoitza hitz batean deskribatu beharko bazenute, nolakoa dela esango zenukete?

Esate baterako, pertsona bat oso maltzurra dela adierazteko "Azeria baino maltzur ragoa haiz hi" esan ohi da. Eta ondorengo hauek?

Ar ranoa baino _____

Zor ria baino _____

Ardi zahar ra baino _____

Erbia bezain _____

Aker raren adar ra baino _____

Barea baino _____

Har ra bezain _____

Mandoa baino _____



8. Ba al dakizue animaliek ere ez dutela berdin hitz egiten hizkuntza guztietan?

◇ Nola egiten du oilar rak euskaraz? _____

◇ Eta txakur txikiak? _____

◇ Eta txer ri txikiak? _____

◇ Eta oilo lokak? _____

◇ Eta igelak? _____

◇ Eta zaldiak? _____

9. Animalia bakoitzaren "mintzoak" ere badu bere izena.



**NOLA ESATEN ZAIO,
ESATE BATERAKO...**

Behiak egiten duenari? _____

Eta otsoak egiten duenari? _____

Eta txerriak? _____

Eta katuak? _____

Eta zaldiak? _____

Eta lehoiak? _____

Eta ardiak? _____

Eta txoriak? _____

Eta astoak? _____

Eta zakurrak? _____

Eta antzarak? _____

Eta oiloak? _____


10. Komenta itzazue zeuen ikaskide eta irakaslearekin.



2
saioa


4 jarduera

1. Itsatsi hemen irakasleak emandako fitxa, eta adierazi esamolde horien parekoak.




1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____

2. Ondoren, beste taldetakoekin elkartu, eta osatu esaldi guztiak.



1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____



1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____

3. Egin berri duzun ariketa hori adibide txiki bat izan dela kontuan izanda, zer moduz moldatzen zara seme-alabei ipuina kontatzerakoan? Erantzun bakarka ondorengo galdeketari.

1 **Beti**
3 **Gutxitan**

2 **Sarritan**
4 **Inoiz ez**

● **Erdaraz ahoz jasotako ipuinak gogoratu eta,**

- bere horretan, erdaraz kontatzen ditut
- gogoratu ahala itzuli egiten ditut
- aldeztatik euskaraz nola kontatu prestatzen dut
- normalean ez dut erdaraz jasotakorik kontatzen, ez naiz moldatzen

● **Euskaraz ahoz jasotako ipuinak gogoratu eta,**

- gogoratu ahala kontatu egiten ditut
- aldeztatik euskaraz nola kontatu prestatzen dut

● **Erdarazko ipuinak hartzen ditut eta,**

- irakurri ahala itzuli egiten ditut
- aldeztatik irakurtzen ditut eta gero nire eran kontatzen ditut
- aldeztatik euskaraz nola kontatu prestatzen dut
- normalean ez dut erdarazkorik erabiltzen, ez naiz moldatzen
- ez diot testuari kasurik egiten, marrazkiei jarraituz kontatzen ditut

● **Euskarazko ipuinak hartzen ditut eta,**

- bere horretan irakurtzen ditut
- testua abiapuntu hartu eta gero nire eran kontatzen dut
- itzulpena baldin bada, nire eran kontatzen ditut
- itzulpena bada, aldeztatik prestatzen dut, egokiago kontatzeko
- euskara egokia ez bada, testua ikusi ahala egokitu egiten dut
- euskara egokia ez bada, nola kontatu aldeztatik prestatzen dut
- testua abiapuntu hartu eta gero osatzen joaten naiz

4. Emandako erantzunak komenta itzazu ikaskide eta irakaslearekin.

SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Bukatzeko adieraz ezazu, denen aurrean, saioari buruz duzun iritzia.



5 jarduera

1. Zein da zure iritzia? Zure ustez, euskara batuaren eta euskalkiaren artean aukeratu beharra dago ala badaude une jakin batzuk euskalkia erabiltzeko eta beste batzuk batuan aritzeko?
2. Elkar zaitzte talde batean bietako bat erabiltzearen aldekoak, eta beste batean unearen arabera bata ala bestea erabiltzearen aldekoak. Eta arrazoitu ezazue.

1. TALDEA

Euskalkia:

Arrazoiak:.....

.....

.....

.....

.....

Batua:

Arrazoiak:.....

.....

.....

.....

.....

2. TALDEA

Euskalkia:

Arrazoiak:.....

.....

.....

.....

.....

Batua:

Arrazoiak:.....

.....

.....

.....

.....

3. Orain, entzun itzazu arretaz ondorengo bi ipuinok. Bietatik zeinekin egiten duzu bat? Zein da zure etxeko ohitura?

Zure etxeko ohitura

.....

.....

.....

.....

.....

.....




3


saioa

6 jarduera

1. Ipuin bat ikusiko duzue bideoz. Lehenengo ikustaldian ahotsik gabe ikusiko duzue, eta ondorengo hiru osagaietan deigarriena adierazi:





Ipuin horretan, beraz, osagai horiei dagozkien ezaugarriak, zure ustez, ondorengo hauek dira:



3

saioa




SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Adieraz ezazu, besteen aurrean, saioari buruzko iritzia.




6 jardueraren jarraipena

1. Ipuinaren bigarren ikustaldirako, bana zaitetze lau taldetan, eta errepara iezaiozue ondorengo puntu hauetakoren bati:



1. Ipuinaren gaia zein den.
2. Ipuina bera nola hasten duen (girotze-modua) eta nola bukatzen.
3. Umeen arretari eusteko zein baliabide erabiltzen dituen.
4. Ahotsa eta gorputza nola erabiltzen dituen.

2. Ipuina ikusi ahala, zure taldekideei adierazi egokitu zaizun puntu horretan atentzioa eman dizuten xehetasunak, eta, denen artean dagokizuen fitxa bete.



1. TALDEA

Ipuinaren gaia zein den:

.....

.....

.....

.....

.....

**2. TALDEA**

Ipuina bera nola hasten duen eta nola bukatzen:

.....

.....

.....

.....

.....

**3. TALDEA**

Umeen arretari eusteko zein baliabide erabiltzen dituen:

.....

.....

.....

.....

.....

**4. TALDEA**

Ahotsa eta gorputza nola erabiltzen dituen:

.....

.....

.....

.....

.....



3. Talde bakoitzak aurkeztu dezala egindako fitxa besteen aurrean.
4. Gainontzekook, aurkezpena entzun ahala, zuen iritzia eman, eta alderaketa bideratu.
5. Ondoren, entzun irakasleak egingo dizuen laburpena. Laburpen horri jarraiki, nahi izanez gero, beste hiru fitxak ere bete ditzakezu.



LABURPENA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

6. Laburpen hori eskuetan duzuela berriro ikusentzungo duzue ipuina.

SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Amaitzeko, adieraz ezazu denon aurrean, saioari buruz duzun iritzia.



7 jarduera

1. Ondoren dituzun baliabideetatik aukera itzazu zerorrek ipuinak kontatzerakoan erabilitako hiru.

- Marrazkia
- Irudia eta testua dituen liburua
- Musika-tresna bat
- Eskuko linterna
- Txotxongiloa
- Batere ez



- Irudi hutseko liburua
- Eskuak, behatzak
- Sonbreroa, txapela
- Jantzi bat
- Aurpegia, begiak
- Besteren bat

2. Ikusi dituzu Pello Añorga ipuin-kontalariak erakutsi dizkigun baliabideak. Bat al datoz hauek zuk hasieran aipatu dituzunekin?

Bai. Zein?

Ez. Zein?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

5 saioa



3. Alderik ikusten al duzu baliabide bat edo beste bat erabili? Zertan? Pentsatu, esate baterako, zuk erabiltzen dituzun baliabideetan. Gerta daiteke, era berean, baliabide bera era ezberdinetan erabiltzea. Zein da zure esperientzia?

Baliabideak

1. _____

2. _____

3. _____

Nola erabili izan duzu?

1. _____

2. _____

3. _____

Eragozpenak/Alderdi onak

1. _____

2. _____

3. _____

4. Komentatu zeure ikaskideekin.

8 jarduera

1. Ipuina entzun ondoren, jar ezazu arreta ondorengo puntuotan:

- Ipuin hori zein adin-moduko umerentzat dela esango zenuke?

- Nolakoak dira ipuineko irudiak: xeheak, adierazkorrak?
Ematen al dute hitz egiteko nahikoa gai?

- Zer-nolako lotura dago irudien eta kontalariak kontatu duen istorioaren artean?

- Ipuineko irudiek ematen al dute istorio ezberdinak kontatzek biderik?




2. Launaka jarri, eta adierazi elkarri zeuen iritzia.

3. Azaldu zuen iritzia talde osoaren aurrean.

- ✓ Adin-modua. Zergatik?
- ✓ Nolako hizpidea ematen duten irudiek.
- ✓ Nolako lotura dagoen irudien eta kontaturiko istorioaren artean.
- ✓ Irudiek istorio ezberdinak kontatzeko bide ematen duten.



4. Gogoratu baliabide honi buruz lehenago adierazi dituzuen ezaugarriak. Bat al datoz? Zertan? Komentatu zeure aldamenekoarekin.



SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Amaitzeko, adieraz ezazu denon aurrean, saioari buruz duzun iritzia.



9 jarduera

1. Zure ustez, ba al du garrantzirik irudien nolakoak? Zeure seme-alaben izaera kontuan izanda, baztertuko al zenuke ipuin bat irudi-motarengatik? Ea, ikusi ondorengo irudiak, eta adierazi zer irizten diezun. Nahi izanez gero, idatzi.

1. Ipuina:

.....

2. Ipuina:

.....

3. Ipuina:

.....

4. Ipuina:

.....

5. Ipuina:

.....

6. Ipuina:

.....

7. Ipuina:

.....

8. Ipuina:

.....

9. Ipuina:

.....

10. Ipuina:

.....

11. Ipuina:

.....



2. Nola adieraziko zenituzke, onomatopeiak erabiliz, ondorengo soinuok. Hirunaka jarrita, lotu itzazue beren kideekin:

1. Makilaz jo	<input type="checkbox"/> Blaust
2. Zerbait puskatu	<input type="checkbox"/> Ijiji!!
3. Kolpean eror i	<input type="checkbox"/> Dan-dan!
4. Edan	<input type="checkbox"/> Txapla-Txapla
5. Ate jok a	<input type="checkbox"/> Dzirt-dzart!
6. Ura irakiten	<input type="checkbox"/> Burrruuun!
7. Der repente azaldu	<input type="checkbox"/> Zapla!
8. Zarata handiz eror i	<input type="checkbox"/> Kliski-klaska
9. Koska egin	<input type="checkbox"/> Brau!
10. Tximis taren argia	<input type="checkbox"/> Prost!
11. Tripetako hotsa	<input type="checkbox"/> Zzzzz!
12. Gezur rezko bar rea	<input type="checkbox"/> Draka-draka!
13. Pauso motxak eginez ibili	<input type="checkbox"/> Gur-gur!
14. Masailean jo	<input type="checkbox"/> Bor-bor!
15. Jipoia eman	<input type="checkbox"/> Zanga-zanga
16. Zaldia tr otean	<input type="checkbox"/> Krask!
17. Uret an ibili	<input type="checkbox"/> Drausk!
18. Euri ugaria	<input type="checkbox"/> Tipi-tapa!
19. Lehertu	<input type="checkbox"/> Dinbi-danba!
20. Lozor roan	<input type="checkbox"/> Zarra-zarra!
21. Trumoia	<input type="checkbox"/> Buuun!

3. Zein dira zuk gehien erabiltzen dituzun onomatopeiak?



- - zein egoeratan?
- - zein egoeratan?
- - zein egoeratan?
- - zein egoeratan?
- - zein egoeratan?

10 jarduera

1. Jar zaitezte bi taldetan: talde batek 4 urte bitarteko umeentzako ipuinak aztertuko ditu, eta besteak 4 urtetik gorakoentzakoak. Taldeka ipuin bana aukeratu, eta besteen aurrean kontatzeko prestatu.
2. Adierazi besteen aurrean zein ipuin aukeratu duzuen eta zergatik, eta, azkenik, nork kontatuko duen.

● Ipuina:.....
● Adina:

● Arrazoiak:
●
●
●
●
●
●
●
●

Beste taldekoek aukeratu dutenaren berri izan nahiez gero, ondorengo lerroetan jaso dezakezu.

● Ipuina:.....
● Adina:

● Arrazoiak:
●
●
●
●
●
●
●
●



6 saioa

11 jarduera

1. Talde bakoitzeko batek kontatuko du ipuina besteen aurrean.

A taldekoek, bien bitartean, ondorengo bi puntuei erreparatuko diezue lehenengo ipuinean:

1. Gaiari eta honek eman dezakeen hizpideari.
2. Edukien garapenari (hasiera, garapena, bukaera) eta hauek adierazteko egokitasunari.

Eta beste bi hauei bigarren ipuinean:

3. Eduki horiei dagozkien soinu-efektuei.
4. Umeen arretari eusteko baliabideei.



B taldekoek, berriz, alderantziz egingo duzue.

2. Ipuin bakoitzaren ondoren, taldekideek elkarren iritziak alderatuko dituzte, eta ondorengo fitxak beteko.

A taldea

1. Ipuina	2. Ipuina
<p>■ Gaia eta hizpidea:</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>■ Edukien hurrenkera eta egokitasuna:</p> <p><input type="checkbox"/> hasiera</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p><input type="checkbox"/> garapena</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p><input type="checkbox"/> bukaera</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>■ Edukiei dagozkien soinu-efektuak:</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>■ Umeen arreta mantentzeko baliabideak:</p> <p>1.</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>2.</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>3.</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>4.</p> <p>.....</p> <p>.....</p>



B taldea

1. Ipuina

■ Edukiei dagozkien soinu-efektuak:

.....

.....

.....

.....

■ Umeen arreta mantentzeko baliabideak:

1.

.....

2.

.....

.....

3.

.....

.....

4.

.....

.....

2. Ipuina

■ Gaia eta hizpidea:

.....

.....

.....

.....

■ Edukien hurrenkera eta egokitasuna:

 hasiera

.....

.....

 garapena

.....

.....

 bukaera

.....

.....

.....

3. Denon artean komentatu egindako lana.

Oharra: Ipuina kontatu ez duzuenok kontatu ezazue zuen umeei etxean, eta, hurrengo saioan, zer moduz moldatu zaretan adieraziko diguzue.

SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Amaitzeko, adieraz ezazu denon aurrean, saioari buruz duzun iritzia.



11 jardueraren ondokoa

1. Kontatu al zenuen etxean 6. saioan prestaturiko ipuina? Gustura gelditu bazinen, adieraz itzazu alderdi positiborik aipagarrienak.
2. Gustura gelditu ez bazinen, berriz, zergatik izan zela uste duzu? Azaldu zure iritzia denen aurrean.

12 jarduera

Gogoratzen al dituzu bigarren saioan aipatu genituen ahozko euskararen ezaugarriak? Zein ziren?

1. Adineko batek kontatutako ipuina ikusentzungo duzu orain. Guk aipatu ditugun ahozko hizkeraren ezaugarrietatik zein erabili ditu? Eta zer adierazteko?

ZEIN?	ZER ADIERAZTEKO?
✓	✓
✓	✓
✓	✓
✓	✓
✓	✓

2. Jarri taldeka, eta alderatu zuen iritzia.
3. Adierazi iritzi horiek talde osoaren aurrean.

13 **jarduera**

1. Guraso baten adierazpenak ikusentzuzko dituzu jarraian. Zuk jaso al zenuen zure aurrekoengandik kontakizunik edo? Eta, hala bada, kontaktzen al diezu horietakoren bat seme-alabei?
2. Binaka jarrita, eta, batak besteari galderak eginez, atera ezazue bikote-lagunaren familiari buruzko informazioa. Elkarrizketa bideratzeko hemen duzue galderen gida bat.

1. Nork kontaktzen zizkizun txikitan ipuinak?

2. Noiz kontaktzen zizkizun?

3. Euskaraz ba al zekien/daki?

4. Ba al dakizu berari nork kontaktzen zizkion?

5. Zuk kontaktzen al dizkiezu seme-alabei zuri txikitan kontatutakoak?



3. Elkarrizketa horren ondorioz, batak bestearen zuhaitz genealogikoa osatuko duzue, belaunaldi bakoitzean transmisioa nola gertatu den bereiziz.
4. Ondoren, batak bestearen berri emango diozue elkarri, osatu duzuen zuhaitz genealogikoa lagun.
5. Bukatzeko, ateratzen diren emaitzen inguruko arrazoiak azaleratzen ahalegindu zaitezte.
6. Bakoitzak bere arrazoiak idatz ditzake beheko laukian.

..

..

..

..

..



SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Adieraz ezazu denen aurrean saioari buruz duzun iritzia.



14 **jarduera**

1. Gogoratzen al duzu txikitari zure aurrekoek kontaturiko ipuinen baten izena? Eta zeri buruzkoa zen? Adieraz ezazu besteen aurrean.
2. Bi taldetan jarrita, aukera ezazue ipuin horietako bat, eta presta ezazue besteen aurrean kontatzeko.

15 **jarduera**

1. Talde bakoitzeko kide batek kontatuko du prestatutako ipuina.
2. Gainontzekoek, bitartean, taldeka jarraituz, ondorengo puntuei erreparatuko diezue:
 - Lehenengo ipuinean:
 - Talde batekoek gorputzaren eta ahotsaren erabilerari.
 - Beste taldekoek, berriz, ahozko euskararen ezaugarrien erabilerari.
 - Bigarren ipuinean, alderantziz.
3. Taldekideek elkarren iritziak alderatu, eta ondorengo fitxak beteko dituzue.

Gorputzaren eta ahotsaren erabileraren egokitasuna	
Bai: <input type="checkbox"/> Zer adierazteko?	Ez: <input type="checkbox"/> Zein unetan?
●	●
●	●
●	●
●	●
●	●

Ahozko ezaugarrien erabileraren egokitasuna

Bai:

Zer adierazteko?

-
-
-
-
-

Ez:

Zein unetan?

-
-
-
-
-

4. Jarduera hau bukatzeko, adierazi zuen iritziak talde osoaren aurrean

SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Saioari amaiera emateko, adieraz ezazu beroni buruz duzun iritzia.





16 jarduera

1. Bi taldetan jarri, eta ipuin ezagunak beste ikuspegi batetik kontatzeko edo erdi-asmatzeko bi joko egingo dituzue:

- A taldeak, esate baterako, ipuin klasiko bat aukera dezake, eta, ikuspuntua aldatuz, besteen aurrean kontatu.
- B taldeak, berriz, ipuin ezezagun baten hasiera hartu, eta jarraipena eman diezaioke.

2. Ipuin horiek besteen aurrean kontatzeko, taldekide batek hasiera eman, eta txandan-txandan denen artean kontatuko duzue, zatika-zatika.

17 jarduera

1. Jarri taldeka, eta saiatu erantzuten irakasleak emandako galderei.



1.-

.....

.....

2.-

.....

.....



3.-



.....

.....

9
saioa

4.-



.....
.....

5.-



.....
.....

2. Galdera horiei erantzuteak aldatuko al luke ipuina?




Zertan?

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....



18 **jarduera**

Orain, ipuin bat ikusentzugo duzue bideoz. Ipuin hau asmatua edota erdi-asmatua da. Ipuina entzuterakoan, ondorengo osagaiei erreparatu behar diezue:



1. Jar zaitetze lau taldetan, eta talde bakoitzak puntu bati erreparatuko dio.

2. Talde osoa elkartu, eta adierazi gainontzekoei atera dituzuen ondorioak.

SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Saioa amaitzeko, adieraz ezazu denen aurrean beroni buruzko iritzia.

19 **jarduera**

1. Bi taldetan jarri, eta talde bakoitzak ipuin bat asmatuko du. Ipuin bat asmatzeko, noski, zenbait baliabide kontuan hartzea komeni da, hala nola:

1. Gaia.
2. Protagonistak.
3. Abentura-kutsua.
4. Misterio-giroa.
5. Komikotasuna.
6. Hizkera.

Ipuina asmatzen hasi aurretik, beraz, norentzako izango den erabakiko duzue. Horretarako, zuen seme-alaben arteko norbait aukeratu, eta, berorri dagozkion ezaugarriak kontuan hartuta, oraindik orain aipaturiko osagaiak egokituko dizkiozue.

2. Talde bakoitzak, beraz, bere ipuina asmatu ondoren, hurrengo saioan beste guztien aurrean nork eta nola kontatuko duen pentsatuko duzue.

SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Amaitzeko, adieraz ezazu denen aurrean saioari buruzko iritzia.





19 jardueraren ondokoa

1. Talde bakoitzeko kide batek kontatuko du, besteen aurrean, 6. saioan prestatutako ipuinak. Ipuina kontatu baino lehen, zein ume-motarentzako den eta beronen ezaugarriak aipatuko ditu.

Gainontzekoek, bien bitartean, taldeka jarraituz, bi punturi erreparatuko diezue:

1. Ipuina

A taldea

1. Asmatu duten ipuina, beren ustez, egokia ote den ume-mota horrentzat.

B taldea

2. Ipuina kontatzerakoan erabili duen euskararen zuzentasunari/egokitasunari.

2. Ipuina

A taldea

1. Ipuina kontatzerakoan erabili duen euskararen zuzentasunari/egokitasunari.

B taldea

2. Asmatu duten ipuina, beren ustez, egokia ote den ume-mota horrentzat.

2. Ipuin bakoitzaren ondoren, talde bakoitzak adieraziko du besteen aurrean bere puntuari buruzko iritzia.

20 jarduera

Oraingoan, zure ustez, moduluan kontatu diren ipuinetatik zein diren egokienak aukeratuko duzu. Denera, 10en bat ipuin entzungo zenituenez, 1etik 10era bitarteko zerrenda bat osatuko duzu. Horretarako, ondorengo irizpideak hartuko dituzu kontuan.

IPUINEN IZENAK	IRIZPIDEAK
1.	<input type="checkbox"/> Umeen adina.
2.	<input type="checkbox"/> Gaia eta hizpidea.
3.	<input type="checkbox"/> Ahozko ezaugarriak.
4.	<input type="checkbox"/> Ipuinen osagaiak:
5.	- ipuina girotzeko modua
6.	- umeen arreta erakarri eta euste- ko modua
7.	- ahotsaren eta gorputzaren erabi- lera
8.	<input type="checkbox"/> Irudia eta testuaren arteko lotura.
9.	<input type="checkbox"/> Onomatopeien erabilera.
10.	

1. Erabaki ezazue, aipatu irizpideen arabera, zein diren moduluan kontaturiko ipuinik egokienak. Lehenik bakarka eta gero launaka.
2. Ipuinak aukeratu ondoren, presta itzazue hurrengo saioan umeen aurrean kontatzeko.

SAIOARI BURUZKO IRITZIA

Amaitzeko, adieraz ezazu denen aurrean saioari buruzko iritzia.



Azken jarduera

1. Konta itzazue eskolako umeen aurrean aurreko saioan aukeratutako ipuinak.
2. Umeak joaten direnean, azter ezazue zer moduz joan den kontaketa-saioa.

Ebaluazioa

1. Irakasleak emango dizun galdesortari erantzunez, moduluaren ebaluazioa egiteko aukera izango duzu.
2. Adieraz itzazu guztien aurrean, zure ustez, iritzirik aipagarrienak.
3. Hemendik aurrera zuen eta seme-alaben arteko hizketa-gaiak eta guneak ugaritzeko egin daitekeena azter dezakezue.



3

Iruin-bilduma

Irudi-liburuak

Urtebetetik aur rera

Oxenbur y, H.: Colección "Los libros del chiquitin". Barcelona: Juventud.

2 urtetik aur rera

Cruz, V.: "El amigo". Barcelona: EdicionesB, 1990.

Dahan, A.: "El gato y el pez". Barcelona: Destino, 1990.

Gagnon, C./ Jouannigot, L.: "Los libros de Tupí (Musgo y sus amigos)". Barcelona: Milan.

Hawksle y, G.: "Nor dago lehioan?" bilduma. Donostia: Tartalo.

Steadman, R.: "Hau nire aita da". Barcelona: Aliorna, 1987.

Türk, H.: Colección "Alex". Barcelona: Destino.

3 urtetik aur rera

Ahlberg, Y. A.: "Adiós, pequeño!". Madrid: Altea, Taurus, Alfaguara, 1990.

Balzola, A.: "Historia de un erizo". Madrid: Miñon, 1982.

Bayley, N.: Colección "El gato". Barcelona: Lumen.

Beer De, H.: Colección "Osito polar". Barcelona: Lumen.

Bos, B./ Beer de, H.: "Oli el pequeño elefante". Barcelona: Lumen, 1989.

Browne, A.: "Willy el tímido". México: Fondo de Cultura Económica, 1991.

Cony, Frances: "Txori langilea"; "Txakur jolastia"; "Katu gosetia"; "Oilo bizkorra".

Eyles, E./ Ross, T.: "Caramba!". Barcelona: Arca de Junior, 1993.

Fuchshuber, A.: "Toribio y el sombrero mágico". Barcelona: Juventud, 1978.

Goffin, J.: "Quien es el jefe?" El masnou: M.S.V, 1991.

Goffin, J.: "Si". Barcelona: M.S.V., 1992.



Holzwarth, W./ Erlbruch, W.: *"El topo que quería saber quien se habia hecho aquello en su cabeza"*. Madrid: Altea, 1991.

Iwamura, K.: Colección *"Los ratoncitos"*. Barcelona: Aliorna.

King, Phillis: *"El gato tripón"*. Edit. Anaya. Fáciles de leer.

Leverth, C./ Solé, C.: *"Pedro y su roble"*. Valladolid: Miñon, 1979.

Lionni, L.: *"Nadarin"*. Barcelona: Lumen, 1988.

Mckee, D.: *"Elmer"*. Madrid: Altea, 1990.

Olfers, S.: *"Los niños de las raíces"*. Madrid: Kokimos, 1992.

Ross, T.: *"Quiero el tito"; "Los tres cerditos"; "Juan perezoso"*. Colección Austral Infantil. Madrid: Espasa-Calpe.

Sendak, M.: *"Donde viven los monstruos"*. Madrid: Altea, Taurus, Alfaguara, 1984.

Vincent, G.: *"Zesar eta Ernestina"*. Barcelona: Timun Mas, 1982.

Wouters, A.: *"Ce livre est trop petit"; "Ce livre est à nous"*. Paris: L'école des loisirs, 1991.

Thomas, V./ Paul, K.: *"La bruja Gertrudis"*. Barcelona: Lumen, 1987.

Ttartaló, 1996: *"Txon eta txan erre kara doaz"; "Negua basoan"; "Basoa sutan"; "Garbiketa egunak"; "Udaberria iritsi da"; "Gure lagunik onena"*.

4 urtetik aur rera

Cole, B.: *"Tres hurras por Erroll!"*. Barcelona: Destino, 1991.

Escala, J. / Solé, C.: *"Brrrrrg!"*. Barcelona: Hymosa, 1992.

Ross, T.: *"Quiero un gato"; "Oscar tiene la culpa"*. Colección Altea Benjamín. Madrid: Altea.

Zimnik, R.: *"El viaje en globo de Guillermo"*. Madrid: Susaeta, 1990.

5 urtetik aur rera

Barklem, Jill: Colección *"Las 4 estaciones"*. Barcelona: Ediciones B.

Butterworth, N./ Inkpen, M.: *"La puerta pequeña"; "El rico granjero"; "La oveja perdida", "La perla preciosa"*. Madrid: S.M.

Falconer, E.: *"La casa que Yack construyó"*. Barcelona. Lumen. 1991.

Felix, M.: Colección *"Libros de ratón"*. Barcelona.: Lumen.

ipuin-bilduma

Heine, H.: *"El maravilloso viaje a través de la noche."* Salamanca: Loguez, 1990.

Kitamura, C.: *"Cuando los borregos no pueden dormir"*. Madrid: Altea, 1986.

Lionni, L.: *"Frederick"*. Barcelona: Lumen, 1992.

Lionni, L.: *"El sueño de Matías"*. Barcelona: Lumen, 1988.

Lionni, L.: *"Petit-bleu et petit-jaune"*. Paris: L'École des loisirs, 1970.

Marshak, S. /Radunsky, V.: *"El perrito creció!"*. Barcelona: Destino, 1992.

Schubert, Y. D.: *"La pequeña zapatones"*. Barcelona: Lumen, 1988.

Steig, W.: *"Doctor de Soto"*. Madrid: Altea, Taurus, Alfaguara, 1991.

Adin guztie tarako

Shubert, D.: *"Monky"*. Barcelona: Lumen, 1988.

Irudi mugikorrak

Dowling, Paul: *"Xabier elurretan"; "Xabier eguzkitan"*. Tartalo, 1995.

Marueco, Isabel: *"Tximeleta erreginarekin"*. Igela eta ahatea bilduma. Susaeta, 1991.

Liburu majikoak

2 urtetik aurrera

Coyle y, Stewart: *"Ahatekume bihurriak"; "Txakurtxoak ezkutaketan"; "Untxi txiki galdua"; "Bost katakume"*. Tartalo, 1995.

Objektu-liburuak:

Urtebetetik aurrera

Bishop, R.: Colección *"Minilibros animados"*. Colombia: Norma, 1991.

Vandermeer, R. A.: *"Colección Sorpresa"*. Barcelona: Molino.

2 urtetik aurrera

Carrol, M.: *"Los sonidos de la granja"*. Barcelona.: Molino, 1992.

Dunn, O. / Morris, R.: Colección *"Pon y Pon"*. Barcelona: Ediciones B, 1991.



Henrietta: *"Un raton en casa"*. Madrid: Altea, 1992.

Mitsumasa, A.: *"Bonjour citrouille!"; "Concou, me voila!"; " Choisis ton masque!"*. Paris: L'école des loisirs.

Moerbeek, K. / DIJS, C.: Colección *"Libros vivos de Kees Moerbeek"*. Barcelona: Plaza joven.

Noelle / Carter, D.: *"Búscame ratoncito!"*. Barcelona: Elfos, 1992.

Van Fleet, M.: *"Números, colores y animales"*. Barcelona: Parramón, 1992.

3 urtetik aur rera

Bateson, M. / Lelie, H.: *"La casa de las muñecas"*. Londres: EdicionesB, 1993.

Goffin, J.: *"OH!"*. El masnou: M.S.V., 1991.

Lastego, C. / Tes ta, F.: *"El parque"*. Italia: Gaviota, 1992.

Maek awa, K.: *"El rio"*. Barcelona: Destino, 1991.

Mosele y, K. / Everit-Ste wart, A.: Colección *"CUIDADO!"*. Barcelona: Plaza joven.

Piénkowski, J.: *"La casa embrujada"*. Madrid: Mondadori, 1979.

Roddie, S. / Rof fey, M.: *"Ojo, que pica!"*.

4 urtetik aur rera

Wolf, T.: *"El pais de los juguetes"*. Barcelona: Molino, 1990.

5 urtetik aur rera

Inkpen, M.: *"El globo azul"*. Barcelona: Molino, 1989.

Mayorga, D.: Colección *"Oscar"*. Barcelona: Ariel.

Ipuin eta alegia klasikoak

2 urtetik aur rera

Valeri, M. E.: Colección *"El caracol"*. Barcelona: La Galera.

3 urtetik aur rera

Langle y, J.: *"Caperucita Roja"*. Barcelona: Junior.

Arlekin bilduma: *"Txokolatzeko etxetxo"; "Mari Errauskin"; "Erpurutxo"; "Alizia"; "Neskatxa ederra lo"; "Ahateko itsusia"; "Botatua"; "Edurne zuri"; "Peter Pan"; "Pinotxo"; "Banbi"*. Susaeta, 1994.

ipuin-bilduma

5 urtetik aur rera

Lawater, W.: *"Le petit chaperon rouge"*. Paris: Adrien Malght, 1965.

Abenturazko alegia:

Ttar talo, 1995: *"Astoa eta idia"; "Azeria eta otsoa"; "Artzain gezurtia"; "Oreina eta ehiztaria"; "Txitxarra eta iñurria"; "Dortoka eta erbia"; "Lehoia eta basurdea"; "Saguen biltzarra"*

Poemak, kantak eta igarkizunak:

2 urtetik aur rera

Lertxundi, A. / Olariaga, A.: *"Maria Goikoarenak"* bilduma. Donostia: Erein.

3 urtetik aur rera

Etzaniz, X.: *"Haur Folklorearen Bilduma"*. Iruñea: Pamiela, 1986.

"Amaren ahotsak ez ditu ahotan Txano Gorritxo edo Erpurutxo bakarrik: bere buruaz ari zaio umeari (...) eta honi deigarri egiten zaio amaren ahotsa, haren doinuak, bolumena, goxoa dakarkion, kezka guztien korapiloak askatzen dizkion, beldurraren mamuak uxatzen dituen musika biguna."

"Ipuinaren jario motela goxo-goxo bien artean doala, umeak badu aitaz edo amaz bere gisara gozatzeko aukera; aurpegiko imintzio eta berezitasun guztiei begiratuko die, gurasoaren begiak, ahoa, azala ... aztertuko ditu. Entzun, bai, entzuten du, baina pozik asko egongo da arretarik gabe, beste zerbait buruan duela -adibidez, ipuina lehendik dakienean-".

(Gianni Rodari)

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak

Erakunde Autonomiatuna

